

EGUBERRIKO KONTZERTUA CHILLIDA LEKUN

Joserra Senperena, Piter Ansorena, Andoni Egaña, Kirmen Uribe eta Jon Mayak emanaldia eskainiko dute gaur

■ Joserra Senperena pianojoleak eta Piter Ansorena txistu eta danbolin joleak musika klasikoa, garaikidea eta herrikoia batuko dituzte ■ Andoni Egaña, Kirmen Uribe eta Jon Maya izango dituzte lagun.

GABONETAKO kontzertu berezia izango da gaur Chillida Leku museoan. Emanaldia eskainiko dute Joserra Senperena pianojoleak eta Piter Ansorena txistu eta danbolin joleak. Musikari hauekin batera eta emanaldia borobiltzeko izango dira: Andoni Egaña bertsolaria, Kirmen Uribe idazlea eta Jon Maya dantzaria. Kontzertua arratsaldeko 19:30etan izango da.

Bigarren aldiz museoan

Joserra Senperena eta Piter Ansorena musikaria aspaldidanik aritu dira elkarrekin lanean eta pasa den abuztuan Chillida Lekun egin zen Musika Hamabostaldian biak batera entzuteko aukera izan zen. Emanaldi hartan Andoni Egaña, Maya anaiak eta Kirmen Uribe ere izan ziren. Emanaldi hura grabatu egin zuten eta disko batean argitaratu, *Chillida-Lekutik* izen-



Musika Hamabostaldian ere izan zen emanaldia eta ikusleek asko gozatu zuten.

buruarekin. Emanaldia oso arrakastatsua izan zen eta jendeak gogotik txalotu zuen amaieran. Egun hartan jende

dezente sarrera gabe gelditu zenez berriro ere errepikatuko dute eta bide batez diskoa aurkeztuko dute jendaurrean.

Sarrerak 20 euro balio du eta Servikutxa, telekutxan edo www.begira.com bitartez eskura daitezke. □

Publikoak gozatu egin zuten Karidadeko Bentarekin

BERTSOLATAREN barruan, Jon Maia eta bere taldeak gozatu ederra eman zion Biteri lepo bete zuen publikoari. Karidadeko Bentak jatorri eta estilo askotako musika eta kantuak bildu eta nahastu ditu bigarren diskoan: Menorkako glosak, Leonard Cohen eta Xepelarren bertsoak, paso dobleak, eta abar. Emanaldian ere asmatu zuten eta publikoak gogotik txalotu zituen.

Bertso-afaria gaur bertso jarriekin

Gaur, osteguna, bertso-jarri-afaria izango da Zumardín. Bertso zahar eta berriak kantatuz girotuko dute. Txartelak bukatu dira. □



Karidadeko Benta taldeko kideak Biteriko areto nagusian.

■ FUTBOLA

Labaien Memoria bihar Zubipen

LABAIEN Memorialeko finala bihar jokatuko da Zubipen. As-teartean jokatu ziren partiduen emaitzak dira: Añorga 2-Lengokoak 1 eta Hernani 0 Real Sociedad 3. Bihar 3 eta 4garren postuak Hernani eta Lengokoak taldeek jokatuko dituzte, arratsaldeko 15:30etan. Arratsaldeko 17:30etan finala jokatuko da: Real Sociedad- Añorga. □

■ ERREMONTA

Ezkurra-Etxeberria III eta Altuna II-Eizagirre gaur estelarrean


GALARRETAN Ezkurra-Etxeberria IIIak eta Altuna II-Eizagirrek jokatuko dute gaur, osteguna, partidu estelarra. Jokin Etxabe ere Galarretako karteleran dago gaur eta Sarasuarekin batean Iñigo-Aizpururen kontra jokatuko du. Beste bi partiduk: Larra-Astibia/Gorriiz-Ion eta Iribarren-Urko/Bereziartua-Olazar. Jaialdia, 16:00etan hasiko da. □

Musa Elur-Txorin

ERREPESKAKO bost partida jokatuko dira gaur Elur Txorin. J. Lopez/ P. Valero; Otegi/Ormazabal; Joxe/I. Imaz; Lapazaran/P. Lopez; I. Bilbao/R. Mellado. □

Doberako loteriak 20 euroko saria du

DOBERA euskera elkarteko loteriak 20 euroko saria du partizipazio bakoitzeko. Saria jasotzeko Doberako bulegora joan behar da, Larramendi 11ko bajora. Ordutegia da, lan egunetan: goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:30etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara. □



YONE
boutique
Kale Nagusia 63
Aurtengo Gabonetan
PREZIO BEREZIAK
• %20
deskontua

Asun Esnal
Bitxigintza
Bitxien konponketak egiten ditugu.
Enkarguzko lanak, zilarra eta urrearekin.
joyeria artesanal
Larramendi 3
HERNANI 20120
Tlfa. 943 33 04 78

HORTZ KLINIKA
- Oiarbide - Otxoa -

Orain helbide berrian aurkituko gaituzu:
ORKOLAGA 3 - 5 behe - Tel.: 943 55 76 53

“Estatutu berriak Estatuarekin garantia sistema izango du”

■ EA-EAJ: “Estatuak bere kasa ezingo du Euskadiko autogobernua murriztu”

HERNANIKO EA-EAJk Ibarretxe planaren inguruan azpimarratu dute Estatutu berriak garantia sistema propio bat izango lukeela hitzartutakoa betetzeko, Euskadi eta Estatuak osatutakoa. Garantia hori lau puntutan zehaztuko litzaiteke: 1) Euskadi eta Estatuaren artean elkarriketa eta negoziazio foro iraunkorra sortu. 2) Tribunal Konstituzionala moldatu, Tribunalak eta Eusko Legebiltzarrak erdibana izendatutako pertsonekin. Erakunde horretan konponduko liriteke Estatutu Berriaren gainean sortu litezkeen interpretazio arazoak. 3) Espainiako Estatuak ezingo du bere kasa Euskadiko autogobernua murriztu. 4) Estatutu berria prozesu baten bidez bakarrik aldatu edo berrituko da. Aldaketa horren oinarria euskal gizartearen borondatea izango da, modu libre eta demokratikoan adierazitakoa.

Berezitasunak

EA-EAJ koalizioak Ibarretxe planaren berezitasun batzuk ere aipatu ditu. “Euskal nortasun nazionalaren sinbolo propioei buruz hitz egiten da. Euskal naziotasuna ofiziala izango da, baita, diasporako euskaldunentzat ere. Euskera hizkuntza ofiziala izango da, gaztelania bezala. Euskadiko hiriburua eta erakundearen lekua Legebiltzarrak erabakiko du.

Plana gaur botatuko dute

Jaurlaritzaren Estatutu proposamena gaur botatuko dute Legebiltzarrean, eta aurrera egiteko gehingo osoa behar du, 38 boto. Oraingoz EA, EAJ eta EBren aldeko botoak ditu, 36, eta EBk zehaztu du bere botoaren zentzua ez dela plana onartzea, tramitazioan aurrera egiteko bidea ematea baizik. SA komisioan abstenitu egin zen. PP eta PSE-EEK kontrako botoa iragarri dute. □



Guztira 40 bat gipuzkoar daude Arantzazun gose greban, hilaren 26an hasi eta ostirala arte izango dira.

5 hernaniar daude gose greban Arantzazun, euskal presoek eskubideen alde

EUSKAL presoek eskubideen alde gose greban daude Arantzazun 40 bat gipuzkoar eta horietatik 5 hernaniar dira. Gose greba pasa den igandean,

hilaren 26an, hasi zuten eta ostirala bitarte bertan izango dira.

Gose greba honekin euskal presoek gaia gizarteratu nahi dute eta horretarako eragile

politiko, sozial eta sindikal desberdinekin biltzen ari dira euskal presoek aldeko konpromezuak proposatu eta iritziak jasotzeko. □

‘Ilargiaren Sekretua’ filmeak guraso eta haur ugari bildu ditu

BAI Euskarari ekimenak antolatuta *Ilargiaren Sekretua* euskerazko pelikula ikusteko aukera izan da aste honetan. Beste artisten artean, Takolo, Pirritx eta Porrotx protagonista dituen pelikula honen 3 saio egin dituzte eta guztira 500 bat haur eta gurasok ikusi dute. □



Guztira 500 bat haur eta guraso izan dira filmea ikusten.

JASOTA BEZALA

Euskararik gabe Euskal Herririk EZ!!

Gaur abenduak 30 Gasteizko Parlamentuan eztabaidatuko den Euskadiko Estatutu Berriaren Proposamena ez da nahikoa euskararen normalizazioa lortzeko. Testuan aldaketak sartu dituzte euskarari buruzko artikuluetan, hizkuntz eskubideen errespetuaren kontzeptua jasotzen du testuak, eta beraz, bide onean egindako aldaketak dira, baina ez dira nahikoa gure ustez. Testu ausartago eta eraginkorragoa behar da euskararen normalizazio osoa lortzeko eta hizkuntz eskubideak babesteko.

Hizkuntz eskubideen errespetuaz hitz egiten da, eta hori aurrerapauso handia dela uste dugu,

baina ez da aipatu ere egiten horriek bermatzeko ze neurri zehatz hartuko diren. Testu horrek, Gernikako Estatutuak bezalaxe, euskararen berezitasunaz, erabiltzeko eskubideaz eta hizkuntza ofizial izateaz hitz egin du, baina ez du aipatu ere egiten euskara ezagutzeko betebeharraren ideia.

Gure ustez hizkuntz eskubideen kontzeptua jasotzearekin batera beharrezkoak dira ondoko puntuak ere euskararen normalizazioa lortzeko: alde batetik, euskal herritar guztiek izan behar dute euskara ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea. Hortaz, Administrazioak belaunaldi berriak euskaldunak izango direla ziurtatuko duen hezkuntza siste-

ma antolatuko du eta bitartekoak jarriko ditu euskara ez dakiten herritarrek lehenbailehen ikas dezaten. Bestetik, epe eta helburu zehatzak izango dituen hizkuntz politika eta corpus juridikoa behar dira; gaur egungo egoera diglosiakoak sortzen duen desoreka soziala gainditzeko balioko du. Corpus juridiko horrek, lehenasunez, euskara erabiltzeko eskubidea eta hizkuntz eskubideen urraketa gainditzeko bermatu behar ditu.

Euskal Herri euskalduna oinarri duen marko juridiko politikoa behar dugu, euskararik gabe Euskal Herririk ez!!

Eli Ansa, Euskal Herriaren Euskerazeko kidea.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087
- ▶ Gauez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Emakume batek pisua behar du alokairuan Hernanin. 690 39 45 01

Emakume bat behar dugu matrimonio bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu: 943 552665

2005 Egutegia
salgai

2 euro

Kronika, Dobera, Sebas,
Iruretagoiena,
Leokadisti, Plaza Berri,
Zinko-enea, Konde,
Dorrnsoro, Bikain, eta
Antziola okindegian.

HERNANIKO
kronika



ZINGI-ZANGA Ostegunetik larunbatera afariak.
Jatetxea Sagardotegia Sagardotegiko menua 15 €.

ZINGI - ZANGA
Florida 54
943 33 03 97

Asteazken zehar, eguneko menuak.

GasHernani

Zure etxerako energia naturala
GAS NATURALA

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Gudarien enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20.120 HERNANI